

2025
eko

URTEKO
TXOSTENA
LGTBIFOBIAREN
AURKAKO
BEHATOKIA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala



Harrotu
CENTRO LGTBI GUNEA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. TESTUINGURUA	6
3. METODOLOGIA	8
4. INDARKERIA MOTAK	9
5. 2025ean LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN JASOTAKO GERTAKARIEN ARTXIBOA5	10
5.1. Erregistratutako gertakariak hilabetekas	10
5.2. Erregistratutako gertakariak indarkeria motaren arabera	12
5.3. Erregistratutako gertakariak, gertatu diren espazioaren arabera	13
5.4. Erregistratutako gertakariak auzoka	14
5.5. Informatzailearen datuak	15
5.6. Eraso jasan duen pertsonaren datuak	18
5.7. Erasotzaileen datuak	22
6. DATUEN BILAKAERA	26

AURKIBIDEA

7. GOGOETA OROKORRAK	34
7.1. Erasoak non gertatzen diren	34
7.1.1. Eremu publikoa da indarkeriaren agertoki nagusi	34
7.1.2. LGTBI+ lantokiak eta zerbitzu publikoak	35
7.1.3. Ingurune digitalak eta sare sozialak	35
7.2. Identifikatu diren indarkeria motak	36
7.2.1. Hitzezko indarkeria eta jazarpen jarraitua	36
7.2.2. Indarkeria sinboliko errepikatua eta antolatua	36
7.2.3. Pertsona trans eta ez-bitarren aurkako indarkeria	37
7.3. Erasotzaileen profila	37
7.4. Ingurukoen erantzuna eta indarkeriaren normalizazioa	38
7.5. Salaketa eta instituzioekiko mesfidantza	38
7.6. Eragin emozionala eta ondorioak	39
7.7. Ondorio kualitatiboak	39
8. ONDORIOAK	40
9. AHOLKUAK	46
10. PROPOSAMENAK	50

1. SARRERA

Iruñeko Udalaren LGTBifobiaren aurkako Behatokiak, LGBTBI+ pertsonen aurkako erasoen aurrean koordinatzeko eta horiei erantzuteko Protokoloaren Batzorde Iraunkorraren lanarekin batera, *sexu-orientazioagatiko, genero-adierazpenagatiko eta sexu- eta genero-identitateagatiko Iruñeko gertakariei buruzko IV. Urteko Txostena* (2025) aurkezten du. Behatokiaren lehenbiziko txostenean 2021eko uztailetik 2022ko uztailera bitarteko gertakariak jaso ziren; bigarrenean, 2022ko abuztutik 2023ko uztailera bitartekoak; hirugarrenean, 2024ko urtariletik abendura bitartekoak; eta, agiri honetan, 2025eko urteko txostena aurkezten dugu.

LGBTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legearekin bat, toki-erakundeen zeregina da baita ere LGBTBI+ pertsonen benetako berdintasun eraginkorra eta eskubideak erabat bermatzea, sexu-orientazioagatiko, genero-adierazpenagatiko eta sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminazio oro prebenituz, zuzenduz eta ezabatuz, bai esparru publikoan, bai pribatuan. Printzipio horrek gidatzen du toki-erakundeen lana, eta erakunde horiek sexu-orientazioari, genero-adierazpenari eta sexu- edo genero-identitateari buruzko ekintza positiboak bultzatzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta erkidegoko LGBTBI+ elkarteen mugimenduaren eta horien proiektu propioak bultzatzekoa ere, haien eskubideak bermatzen eta betetzen direla zaintzeko agindu partekatuari erantzuteko.

Gainera, Iruñeko Udalaren Sexu- eta genero-aniztasunaren eta LGBTBI+ Berdintasunaren I. Udal Planaren helburu gisa jasota dago, *sexu-orientazioagatiko, genero-adierazpenagatiko eta sexu- eta genero-identitateagatiko diskriminazioa eta indarkeria ezabatzea, eta Iruña hiri aske, seguru eta askotarikoa izateko baldintzak sortzea*. Eta, horretarako, zenbait neurri proposatzen ditu, honako hauek aintzat hartuta: sexu- eta genero-aniztasuna sustatzea, gizartea sentsibilizatzea, diskriminazioa prebenitzea eta sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik edo -identitateagatik indarkeriak edo diskriminazioak jasaten dituzten

pertsonak artatzea. Neurri horien barruan, LGTBIfobiaren aurkako behatoki eraginkor bat garatzea aipatzen da, gertakariak erregistratu eta aztertzeke, eta prebentzio- eta sentsibilizazio-ekintzetarako orientazioa behar denean harajotzeko.

Iruñeko Udalaren helburuetako bat jarduketa-esparrua eta behar diren baliabideak sortzea da, LGBTI+ pertsonekin batera hiri anitza eta askea eraikitzeke. Pertsona guztiek esparru guztietan lekua izanen duten ingurunea sortzea da xedea. Prozesu hori hiriak LGBTI+ politika publikoekin duen konpromisoaren parte da, LGBTI+ kolektiboak eta herritarrak kontuan hartuta, gizartea benetan eraldatzeko funtsezko eragileak baitira. Hirian LGTBIfobia desagerrarazteke, ezinbestekoa da indarkeria mota horiek ikusaraztea eta horien oinarrian dauden indarkeria kulturalaren eta estrukturalaren barnean kokatzea. LGTBIfobia ez da gertakari isolatuetara edo indibidualetara mugatzen; desparekotasun-sistema zabalago baten parte da, eta gizarte-arauen, diskurtso mediatikoen eta jarrera politikoen bidez erreproduzitzen da. Ildo horretan, diskurtso publikoak funtsezkoak dira, eskubideak bermatzen eta aurreiritziak legitimatzen lagundu baitezakete. Horren adibide dugu, batez ere, transpertsonen berdintasunerrealeta eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legea («Trans Legea» izenez ezagunagoa dena) dela-eta azken urteetan trans pertsonen eskubideen inguruan eman den eztabaida sozial eta politikoa. Lege horrek agerian utzi du diskurtso jakin batzuek polarizazioa areagotzen ahal dutela eta LGBTI+ pertsonen eguneroko bizitzan zuzenean eragiten duen testuingurua sortu, eta hala, diskriminazio- eta indarkeria-egoerekiko esposizioa areagotu. Indarkeria horiek, beraz, gertakari indibidual gisa ez ezik, esparru askotan (eremu publikoan, familia-, eta hezkuntza-esparruan edo lan-ingurunean) errepikatzen den desparekotasun-sistema baten adierazpen gisa ere ulertu behar dira.

Erreferentzia-esparru horretan kokatzen da Iruñeko Udalaren LGTBIfobiaren aurkako Behatokia, sexu- eta genero-aniztasuneko politika publikoen garapenaren parte den heinean. Urteko txosten honek hirian hautemandako LGTBIfobiari buruzko egungo errealitatean sakondu nahi du, datuak eta emaitzak aztertuz, horrek diskurtso LGTBIfobikoak desagerrarazteke lanean jarraitzeke eta egoeraren bilakaera aztertzeke aukera emanen baitigu.

2. TESTUINGURUA

Arestian aipatu dugun moduan, tokiko azterketa testuinguru zabalago batean kokatu behar da. Estatuan zein Europan egin berri diren txostenek LGBTBI+ pertsonen aurkako gorroto-diskurtsoak areagotu egin direla ohartarazten dute. Zenbait behatoki adierazten duten moduan, diskurtso horiek erasoak egin aurretik plazaratzeaz gain, erasoak normalizatzen laguntzen duen giro soziala sortzen dute. Horiek horrela, LGBTBIfobia ez da gertakari isolatuen batura huts gisa hartu behar, baizik eta dinamika sozial, kultural eta politikoen bidez birsortzen den eta LGBTBI+ pertsonen eguneroko bizitzan zuzenean eragiten duen fenomeno estruktural gisa.

Europako eta nazioarteko testuinguruan, LGBTBI+ pertsonen eskubideen inguruan joera kezagarria dagoela ohartarazten dute berriki egindako hainbat txostenek. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (FRA) eta Europako Kontseiluak, besteak beste, adierazi dute gorroto-diskurtsoak areagotu egin direla, batez ere ingurune digitaletan, eta trans pertsonen eskubideei buruzko eztabaida publikoa gogortu egin dela. Era berean, nazioarteko zenbait erakundek, horien artean ILGA-Europek, geldialdia dokumentatu dute Europako zenbait herrialdetan, baita atzerapausoak ere, legeko aitortzeak eta diskriminazioaren aurreko babesari dagokionez. Testuinguru horrek jarrera sozial LGBTBIfobikoak agertzea eta normalizatzea ekartzen ahal duen giro soziala sortzen laguntzen du.

Barne Ministerioak 2023an Espainian gorroto-delituen bilakaerari buruz egindako txostenaren arabera, hauek dira diskriminazioarako arrazoi nagusiak: arrazakeria/xenofobia (856 kasu, guztizkoaren % 41,8); sexu-orientazioa eta genero-identitatea (522 kasu), eta ideologia (352 kasu). Kontuan hartu behar da gorroto-delitu baten biktime izateak alderdi asko dituela; erasotuetako askok diotenez, faktore bat baino gehiagok

eragin dute erasoen biktima izatea. Hala ere, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko delituak izan ziren arrazakeriagatiko/xenofobiagatiko delituen ondoren bigarren talderik ugariena, eta igoera nabarmena izan zuten aurreko urteekin alderatuta. Aurreko urteetako bilakaerari dagokionez, 2020an 277 kasu erregistratu ziren; 2021ean, 466; 2022an, 459; eta 2023an, 522. Hala, hazkunde nabarmena ikusten da, batez ere 2020. eta 2021. urteen artean, eta igoera jarraitua 2023ra arte. Igoera hori, neurri batean, gizarte-sentsibilizazio handiagoaren eta salatzen ez diren kasuak murriztu izanaren ondorioztat hartzen da, nahiz kasuen ehuneko handi bat ez den salatzen oraindik ere.

Txosten horretan bertan nabarmentzen da mehatxuak, lesioak eta gorrotora bultzatzea izan zirela delitu-mota ohikoenak. Gorroto-delituen, arau-hausteen eta gorroto-gertakarien tasari dagokionez, Nafarroakoa % 14,14koa da 100.000 biztanleko. Horrek tasarik handiena duen erkidego gisa kokatzen du, EAE atzetik duela, % 12,21eko tasarekin.

Sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko biktimen sexuari dagokionez, Espainian % 76 gizonak dira eta % 24 emakumeak. Era berean, aipatzekoa da biktimen % 14,8 adingabeak direla. Gorroto-delituengatik atxilotutako edo ikertutako pertsonen dagokienez, % 81,5 gizonak dira.

Espainiako gorroto-delituen bilakaerari buruzko 2024ko txostenaren arabera, urte horretan 1.955 arau-hauste penal eta gorroto-gertakari ikertu ziren, hau da, 2023an baino % 13,8ko gutxiago, aurreko urteetako goranzko joera hautsiz.

Sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko gorroto-delituei buruz 2024an jasotako datuei dagokienez, 528 kasu erregistratu ziren. Aurreko urteetan bezala, bigarren talderik ugariena dira, eta % 1,15eko igoera izan du 2023arekin alderatuta. 2024. urtean, lesioak eta mehatxuak izan ziren delitu motarik ohikoenak, eta ondoren, gorrotoa sustatzea edo bultzatzea.

Biktimen sexuari dagokionez, 2024ko datuak antzekoak dira: %76 gizonezkoak izan ziren, eta %24 emakumezkoak. Hala ere, erasotzaileei buruzko datuek baieztatzen dutenez, gizonezkoak dira nagusi (% 81,9) oraindik ere.

Azkenik, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (FRA) sistematikoki ohartarazi du bere argitalpen berrienetan (2024-2025), EBko gorroto-delituen salatu gabeko kasuen kopuruak (underreporting) oso handia izaten jarraitzen duela, eta horrek ikusezin bihurtzen duela arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren benetako larritasuna. FRAk adierazi duenez, legegintza-ahaleginak egin arren, biktima gehienek ez dute poliziarengana jotzen, sarritan, ez direlako agintariez fio edo salaketak ez duela ondoriorik izanen uste dutelako.

3.METODOLOGIA

Iruñeko Udalaren LGTBifobiaren aurkako Behatokiaren IV. Urteko Txostenean jasotako kasuak detektatzeko, LGTB+ pertsonen aurkako erasoak motaren arabera sailkatu dira, zorrotasun handiagoa lortzea eta jasotako gertakariak aztertzea helburu hartuta.

Gertakari horiek hainbat bidetatik jasotzen dira:

- Online erregistro-orriak:
<https://www.pamplona.es/eu/behatokia-lgtbi>
- Telefonoa, Harrotun
- E-mail: harrotu@pamplona.es
- Sare sozialak
- Aurrez aurre: Harroturen bulegoan (San Gregorio k. 28)

Gertakaria erregistratu ondoren, erasotuei arreta emateko dauden zerbitzuak eskaintzen zaizkie, informazioa Udaltzaingoarekin kontrastatzen da (behar izanez gero) eta LGTBifobiaren aurkako Behatokiaren hileroko txostenetan jasotzen da, ondoren Batzorde Iraunkorrak azter dezan.

Bildutako informazioa Iruñeko udalerriari buruzkoa da. Hala ere, beste herri batzuetatik gertakariak iristen direnean, behar diren kanalen bidez eta gertakarien arabera bideratzen zaizkio dagokionari.

4. INDARKERIA MOTAK

HITZEZKOA: Hitzezko indarkeria iruzkin sarkastiko txiki edo kritiken bidez has daiteke. Beste pertsona mindu, umiliatu eta gutxietsi nahi duten kexa, irain edo laido gisa adierazten da.

FISIKOA: Indarkeria fisikoa dira pertsona baten gorputzaren aurka kalte fisikoa eragiteko asmoz egiten diren eraso guztiak, dela kolpeen bidez, objektuak jaurtiz, giltzaperatuz, bultzatuz edo estutuz, besteak beste.

SEXUALA: Sexu-indarkeria dira beste pertsonak nahi ez dituen eta onartzen ez dituen sexu-harreman edo -ekintza guztiak, izan fisikoak nahiz hitzezkoak. Sexu-indarkeria indar edo bortxa fisikoa, psikologikoa edo norberaren borondatea deuseztatu edo mugatzen duen beste edozein mekanismo erabiliz ager daiteke.

SINBOLIKOA: Indarkeria sinbolikoak este-reotipoak erreproduzitzen ditu eta nagusitasun-mendekotasun harremanak indartzen ditu. Indarkeria sinbolikoak pentsamenduak, mezuak, irudiak eta jokabideak erabiltzen ditu mekanismo gisa, erreproduzitzen dituen estereotipoekin bat ez datozenak umiliazioaren eta diskriminazioaren bidez baztertzeko.

JAZARPENA: Pertsona bat etengabe jazartzeko ekintza negatiboa, indarkeria edo larderiaren bidez haren gainean edozein motatako tratatu txar fisiko, moral edo psikologiko gauzatzeko.

MEHATXUAK: Mehatxua oraindik gertatu ez den egitate edo gertaera batetik sortzen den arriskua da, baina gertatzen ahal da esandakoa gertatuz gero, inguruabar edo gertaera horrek pertsona jakin bat edo batzuk kaltetzea

TOKI BATETIK KANPORATZEA: Norbait leku bat uztera behartzea esan nahi du, pertsona bezala dituen ezaugarrietan oinarrituta, horretarako gertaera objektiborik ez badago ere.

5. 2025ean LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN JASOTAKO GERTAKARIEN ARTXIBOA

Taula honetan ikusten den gisan, 2025ean **44 gertakari erregistratu ziren Iruñean** LGTBifobiagatik, bai aurrez aurre, bai beste bide batzuetatik (telefonoa, posta elektronikoa eta sare sozialak).

Gainera, 29 elkarrekintza erregistratu dira koordinazioari dagokionez Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorrarekin eta Batzorde Iraunkorra osatzen duten eragileekin (LGTBI+ kolektiboetako ordezkariak eta hainbat udal-eragile).

Ondoren, **Iruñean 2025ean erregistratutako 44 gertakarien analisi kuantitatiboa** egingen dugu, ataletan antolatuta:


HILABETEA	GERTAKARIAK
URTARRILA	0
OTSAILA	3
MARTXOA	3
APIRILA	1
MAIATZA	2
EKAINA	6
UZTAILA	11
ABUZTUA	2
IRAILA	5
URRIA	5
AZAROA	1
ABENDUA	5
GUZTIRA	44

5.1. ERREGISTRATUTAKO GERTAKARIAK HILABETEA

Hurrengo taulan, hilabeteka banatuta jasotzen dira Iruñeko LGTBifobiaren aurkako Behatokian erregistratutako gertakariak.


2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATUTAKO GERTAKARI KOPURUA, HILABETEKA

GERTAKARIAK



Hilabetea aztertuz gero, 2025. urtean LGTBfobiak eragindako gertakariak honela banatu dira: otsailean eta martxoan kasuen % 6,8, apirilean % 2,3, maiatzean % 4,5, ekainean % 13,6, uztailean % 25, abuztuan % 4,5, irailean eta urrian % 11,4, azaroan % 2,3 eta abenduan % 11,4.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATUTAKO GERTAKARI KOPURUA, GERTATU ZIREN HILABETEAREN ARABERA, EHUNekoETAN



5.2 ERREGISTRATUTAKO GERTAKARIAK INDARKERIA MOTAREN ARABERA


Hurrengo taulan, indarkeria motaren arabera sailkatu dira gertakariak.

HITZEZKOA	25
FISIKOA	8
SEXUALA	2
SINBOLIKOA	22
JAZARPENA	13
MEHATXUA	4
TOKI BATETIK KANPORATZEA	5
INSTITUZIONALA	1
BESTE BATZUK	2
GUZTIRA	80

**Kontuan izan behar da gertakari berean indarkeria-mota bat baino gehiago gertatzen ahal direla. Hori dela eta, erregistratutako 44 gertakarietan 80 egoera identifikatu dira guztira, 10 indarkeria-motari dagozkienak.*

Indarkeria motari erreparatuz gero, ikusten da kasuen % 30,5 hitzezko erasoei dagozkiela, % 26,8 eraso sinbolikoei, % 15,9 jazarpenari, % 9,8 indarkeria fisikoari, % 6,1 espazio batetik kanporatzeari, % 4,9 mehatxuei, % 2,4 sexu indarkeriari eta beste indarkeria mota batzuei, eta, azkenik, % 1,2 indarkeria instituzionalari.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATUTAKO GERTAKARI MOTAK



5.3. 5.3. ERREGISTRATUTAKO GERTAKARIAK, GERTATU DIREN ESPAZIOAREN ARABERA

Ondoren, erregistratutako gorabeherak zein espazioetan gertatu diren adierazten da, eta espazio bakoitzeko kopurua.


EREMU PUBLIKOA	22
GARRAIO PUBLIKOA	1
KIROL-EREMUA	0
LAN-EREMUA	11
HEZKUNTZA-EREMUA	0
AISIALDI-EREMUA	4
ETXEA	2
ONLINE	1
CRUISING	3
ED/EDE	2
BESTE BAT	2
GUZTIRA	48

**Kontuan izan behar da gertakari bera toki batean baino gehiagotan gertatzen ahal dela. Horregatik, 44 gertaerak 48 espaziotan gertatu direla islatzen da.*

Adibidez, lan-eremua toki publiko bat denean.

2025ean erregistratutako gertakariak zer espaziotan gertatu diren aztertuta, ikusten da % 45,8 eremu publikoan izan direla, % 22,9 lan-eremuan, % 8,3 aisialdiko guneeetan, % 6,3 cruising-guneetan, % 4,2 etxeko eremuan, ehuneko hori bera dagokio beste indarkeria mota bati eta ED/EE aukerari, eta, azkenik, % 2,1 garraio publikoan eta online-guneetan gertatu dira. Kirol- eta hezkuntza-eremuetan ez da gertakaririk erregistratua.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATU DIREN GERTAKARIAK ZEIN ESPAZIOTAN GERTATU DIREN




5.4. ERREGISTRATUTAKO GERTAKARIAK AUZOKA

Indarkeria zein auzotan gertatu den aztertuz gero, ondorengo taula eta grafiko linealean auzoak eta bakoitzean erregistratutako gertakari-kopurua ikusiko ditugu, eta hurrengo grafikoan ehunekoak.

AZPILAGAÑA	1
BUZTINTXURI	0
ALDE ZAHARRA	17
TXANTREA	1
ZABALGUNEAK	5
ERMITAGAÑA / MENDEBALDEA	0
ETXABAKOITZ	0
ITURRAMA	0
LEZKAIRU	1
MENDILLORRI	6
ARROSADIA	1
ARROTXAPEA	2
DONIBANE	2
SANDUZELAI	3
ED/EDE	5
GUZTIRA	44


2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATU DIREN GERTAKARIAK HIRIKO ZEIN AUZOTAN GERTATU DIREN



Alde Zaharrean izan dira gertakari gehien –erregistratutako kasuen % 38,6–, eta horren atzetik Mendillorri (% 13,6), Zabalguneetan (% 11,4), Sanduzelain (% 6,8), eta Arrotxapean eta Donibanen (% 4,5). Ehuneko bera (% 2,3) erregistratu da Azpilagañan, Txantrean, Lezkairun eta Arrosadian. Ermitagañan, Etxabakoitzen eta Iturraman ez da gertakaririk erregistratu.

Erregistratutako kasuen % 11,4an ez diote galderari erantzun edo ez dakite gertakaria non gertatu den.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATU DIREN GERTAKARIAK HIRIKO ZEIN AUZOTAN GERTATU DIREN



5.5. INFORMATZAILEAREN DATUAK

Atal honetan, gertakariaren berri eman duen pertsonaren zenbait datu jasotzen dira: erasoa jasan duen pertsonarekin duen harremana, erasoa jakinarazteko erabilitako bidea, sexua eta adina.


Erasoa jasan duen pertsonarekin duten harremanari dagokionez, honako datu hauek jaso dira:

S:

ERASOA PAIRATU DUEN PERTSONA BERA DA	21
FAMILIA	0
ADISKIDEA	2
HERRITARRAK	17
BESTE BAT	4
ED/EDE	0
GUZTIRA	44

Ehunekotan, kasuen % 47,7an informazioa ematen duen pertsona eraso jasan duen pertsona bera da, % 38,6an, herritarrak dira informazioa ematen dutenak, eta % 4,5ean, informazioa ematen duena eraso jasan duen pertsonaren laguna da. Kasuen % 9,1 beste bat kategorian erregistratu dira.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN GERTAKARIEN BAT ERREGISTRATU DUTENEN EHUNEKOA




Gertakariaren berri eman duten pertsonek bide desberdinak erabili dituzte harremanetan jartzeko.

WEBGUNEKO INPRIMAKIA	17
AURREZ AURREKOA	17
WHATSAPPA	1
TELEFONOA	2
SARE SOZIALAK	1
EMAIL	6
GUZTIRA	44

Hau da, intzidentzien % 38,6 webguneko inprimakiaren bidez nahiz aurrez aurre erregistratu dira, Harroturen egoitzan, % 13,6 e-mail bidez, % 4,5 telefono bidez eta % 2,3 WhatsApp eta sare sozialen bidez.


2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIA GERTAKARIREN BAT ERREGISTRATU DUTENEK ZEIN KANAL ERABILI DUTEN



Informatzailearen sexuari dagokionez, % 52,3k emakume gisa identifikatu du bere burua, % 31,8k gizon gisa, % 13,6k pertsona ez-bitar gisa eta % 2,3k ez dio item horri erantzun. Hauek dira datuak:

EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK	BESTE BAT	ED/EDE	GUZTIRA
23	14	6	0	1	44


2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIA REN AURKAKO BEHATOKIAN GERTAKARIREN BAT ERREGISTRATU DUTENEN SEXUAK



Azkenik, adinari dagokionez, 28 informatzailek 30–49 urte dituzte (kopuru osoaren % 63,6), 12k 18–29 urte (% 27,3) eta 4k 50–69 urte (% 9,1). Ez dago 0–17 adin-tarteko pertsona bakar bat ere, ezta 70tik gorakorik ere.

0–17	18–29	30–49	50–69	70 edo gehiago	BESTE BAT	ED/EDE	GUZTIRA
0	12	28	4	0	0	0	44

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN SALAKETAREN BAT ERREGISTRATU DUTENEN ADINA.




5.6. ERASOA JASAN DUEN PERTSONAREN DATUAK

Atal honetan, erasoak jasan duen pertsonaren datuak jasotzen dira: haren sexua, adina eta LGTBIQ+ akronimoko zein letrarekin identifikatzen den.

EMAKUMEAK	GIZONAK	EZBITARRAK	BESTE BAT	ED/EDE	GUZTIRA
13	9	1	0	21	44

Pertsonaren sexuari edo erasotuaren sailkapenari dagokionez, % 29,5 emakumeak dira, % 20,5 gizonak eta % 2,3 ez bitarrak.


2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN GERTAKARIREN BAT ERREGISTRATU DUTENEN SEXUA.



Aipatzekoa da % 47,7k “ez daki edo ez du erantzuten” erantzun duela kategoria horri dagokionez. Baliteke hori arrazoi bat baino gehiagogatik gertatzea, hala nola indarkeria sinbolikoko ekintza bat delako (adibidez, eserlekuen aurkako erasoak) edo gertaera berean pertsona bat baino gehiago eraso dituztelako.

Hori dela eta, galdera horri erantzun dioten pertsonen sexuaren ehuneko osoa soilik kontuan hartuta (23 eraso guztira), eraso jasan duten pertsonen % 56,5 emakumeak dira, % 39,1 gizonak eta % 4,3 ez-bitarrak.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN GERTAKARIREN BAT ERREGISTRATU DUTENEN SEXUA




Erasoa jasan duen pertsonaren adinari dagokionez, honako hau ikusten da:

0-17	18-29	30-49	50-69	70 edo gehiago	ED/EDE	GUZTIRA
0	10	10	0	0	24	44

Informatzaileen % 54,5ek ez du zehaztu erasoa jasan duen pertsonaren adina eta datu hori hutsik utzi du. Berriro ere, arrazoiak bat baino gehiago izaten ahal dira, hala nola, erasoa jasan duten pertsonak bat baino gehiago izatea, edo erasoa sinbolikoa izatea, eta beraz, zuzenean erasotutako pertsonarik ez egotea. Kasuen % 22,7an, erasoa jasan duten pertsonak 18-29 urtekoak dira, eta ehuneko bera da 30-49 urteko adin-tartean ere.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIA ERASOREN BAT PAIRATU DUTENEN ADINAS




Informazioa ematen duen pertsonari buruz eskatzen den azken datua da ea LGTBIQ+ akronimoaren zein letrarekin identifikatzen den. Hauek dira bildutako datuak:

L - LESBIANA	1
G - GAYa	7
T-TRANSa	10
B - BISEXUALA	3
I - INTERSEXUALA	0
Q - QUEERa	3
PLUSa	1
ED/EE	24
BESTE BAT	1
GUZTIRA	50

**Garrantzitsua da kontuan hartzea, balitekeela gertakari berari buruzko informazioa ematen duen pertsona letra bat baino gehiagorekin identifikatzea. Hori dela eta, 44 gertakarietan guztira 50 letra identifikatu dira.*


Datuak ehunekoetara ekarrita, % 48k ez dio galdera horri erantzun, % 20 T-Trans gisa identifikatu dira, % 14 G-Gay gisa, % 6 B-Bisexual gisa, % 6 Q-Queer gisa, eta % 2 L-Lesbiana gisa. Ehuneko horrekin berarekin (% 2) identifikatzen dira Plus pertsonak eta bestelakoak. Inor ez da identifikatu I-Intersexuala letrarekin.

2025AN IRUÑEAN LGTBIQ+ AKRONIMOAREN HIZKIREN BATEKIN IDENTIFIKATU ETA ERASOA PAIRATU DUTENEN EHUNEKOA



Berririo ere, ia erasoen erdietan ez da adierazten erasoa jasan duen pertsona LGBTQ+ kolektiboko zein taldetakoa den. Hori dela eta, informazio hori eman den kasuetako datuen analisia egin da. Erregistro horien arabera, erasoen % 38,5 T-Trans pertsonen aurka bideratu dira, % 26,9 G-Gayen aurka, % 11,5 B-Bisexualen aurka, % 11,5 Q-Queer pertsonen aurka, % 3,8 L-Lesbianen aurka eta ehuneko hori bera Plus gisa identifikatzen diren pertsonen eta kolektiboko bestelako identitate batzuen aurka.

2025AN IRUÑEAN LGBTQ+ AKRONIMOAREN HIZKIREN BATEKIN IDENTIFIKATU ETA ERASOA PAIRATU DUTENEN EHUNEKOA



5.7. ERASOTZAILEEN DATUAK


Erregistratutako 44 gertakarietatik 31tan identifikatu dira erasotzaileak. Jarraian, horien analisia egiten da eta honako datu hauek jasotzen dira: sexua, adina, erasoa jasan duen pertsonak erasotzailea ezagutzen ote duen eta inguruan norbait egonez gero jendeak nola erantzuten duen egoeraren aurrean.

Erasotzailearen sexuari dagokionez, honako datu hauek jaso dira:

EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ BITARRAK	BESTE BAT	ED/EDE	GUZTIRA
6	22	0	3	13	44


Erasotzaileen % 50 gizonetzkoak dira edo gizonetzotzat hartzen dituzte, % 29,5ek ez dio galdera horri erantzun, % 13,6 emakumezkoak dira edo emakumetzat hartzen dituzte eta % 6,8k beste bat gisa sailkatzen dute. Azken kasu horretan, xehetasun gehiago eskatuta, erasotzaileak bat baino gehiago zirela erantzun dute, eta gizonak nahiz emakumeak.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATUTAKO INTZIDENTZIAK. ERASOTZAILEAREN SEXUA EHUNekoETAN.



Gertakarien berri eman duten pertsonen ia % 30ek ez du erasotzailearen sexuari buruzko daturik eman, eta beraz, gerta liteke datuek errealitatea ez islatzea. Sexu ezaguneko erasotzaileen ehunekoa soilik kontuan hartuta (31 pertsona dira guztira) erasotzaileen % 71 gizonak dira, % 19,4 emakumeak eta % 9,7 beste batzuk gisa sailkatuak.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATUTAKO INTZIDENTZIAK. ERASOTZAILEAREN SEXUA EHUNekoETAN.




Erasotzaileen adinari dagokionez, ondorengo taulan jaso dira datuak, eta jarraian, ehunekoen grafikoa.

0-17	18-29	30-49	50-69	70 edo gehiago	BESTE BAT	ED/EDE	GUZTIRA
2	4	7	9	2	0	20	44

% 45,5ek ez daki edo ez du erantzun; erasotzaileen % 20,5 50-69 urtekoak dira; % 15,9, 30-49 urtekoak; % 9,1, 18-29 urtekoak; % 4,5, 0-17 urtekoak eta % 4,5, 70 urtetik gorakoak.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATUTAKO INTZIDENTZIAK. ERASOTZAILEAREN ADINA EHUNEKOETAN.




Erasoa jasan duen pertsonak eta erasotzaileak elkar ezagutzen ote duten galderari buruz, honako datu hauek jaso dira:

BAI	EZ	ED/EDE	BESTE BAT	GUZTIRA
7	24	12	1	44

Erantzunen % 54,5ean, erasotzaileak eta erasotuak ez dute elkar ezagutzen; kasuen % 27,3an, ez dute erantzun edo ez dute datu hori ezagutzen; kasuen % 15,9an, elkar ezagutzen dute, eta % 2,3k beste aukera hautatu dute, horri buruzko informazio gehiagorik gehitu gabe.

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATUTAKO INTZIDENTZIAK. ERASOTZAILEA EZAGUTZEN DUTEN PERTSONA ERASOTUEN EHUNEKOA.




Azkenik, gizarteak LGTBifobiagatiko erasoen aurrean ematen duen erantzuna aztertu da, eta inguruan zeuden pertsonen horrelako erasoen aurrean duten erreakzioari buruzko datuak jaso dira.

Kasuen % 72,1ean erantzuna “ez daki edo ez du erantzuten” da; % 23,3an inguruko pertsonen axolagabe jotzen dute eta % 4,7an laguntza ematen dute.

DAGOENEAN UZTEA	LANKIDETZA/LAGUNTZA	ED/EDE	BESTE BAT	GUZTIRA
10	2	32	0	44

2025AN IRUÑEAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN ERREGISTRATUTAKO INTZIDENTZIAK. INGURUAN ZEUDEN PERTSONEN ERANTZUNEN TIPOLOGIAREN EHUNEKOA



6. DATUEN BILAKAERA




Atal honetan, 2024. eta 2025. urteetako datuen bilakaera aztertuko dugu. Hurrengo taulan, LGTBifobiaren aurkako Behatokiak informazioa bildu duen bi urteetan **jasotako gertakarien kopurua** agertzen da.

	2024	2025
GERTAKARIAK	22	44

Grafiko honetan Behatokiak Iruñean 2024an eta 2025ean guztira jasotako gertakarien kopurua alderatzen da.

2024 ETA 2025 URTEETAKO GERTAKARI KOPURUA, OROTARA




2025ean, 2024an baino 22 gertakari gehiago jaso dira, hau da, aurreko urtean baino % 50 gehiago. Hurrengo taulan **gertakari bat erregistratzen dutenen zerrenda** islatu da, urteka.

	2024	2025
ERASOA PAIRATU DUEN PERTSONA BERA DA	8	21
FAMILIA	2	0
ADISKIDEA	0	2
HERRITARRAK	12	17
BESTE BAT	*(1)	4
ED/EDE	*(1)	0
GUZTIRA	22	44

Hurrengo grafikoan, jasotako gertakariei buruzko datu absolutuen zerrenda aurkezten da, 2025. urteko eta 2024. urteko alderaketa barne..

2024 ETA 2025 URTEETAN LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIAN GERTAKARIREN BAT ERREGISTRATU DUTENEN ZERRENDA



*(1)Beste bat eta ED/EE kategorien kopuruei dagokienez, 2024an ez zen datu hori bildu; 2025ean gehitu da kategoria hori.


Hona hemen 2024an eta 2025ean LGTBIfobia-gertakariak erregistratzeko erabilitako kanalei buruzko datuak

	2024	2025
WEBGUNEKO INPRIMAKIA	11	17
AURREZ AURREKOA	3	17
WHATSAPPA	2*	1
TELEFONOA	0	2
SARE SOZIALAK	5	1
EMAIL	3	6
GUZTIRA	22	44

Kanal guztietan igo da erregistratutako kasuen kopurua, sare sozialetan izan ezik, horietan lau gertakari gutxiago jaso baitira 2025ean, hau da, %80 gutxiago. Nabarmentzekoa da web-inprimakiaren bidez erregistratutako gertakariak % 54,55 igo direla. Harroturen egoitzan aurrez aurre erregistraturiko kasu-kopuruaren igoera % 466,67koa izan da, eta posta elektronikoaren bidez erregistraturikoa % 100ekoa.

Hurrengo grafikoak gertakariak erregistratzeko erabilitako kanalen ehunekoak jasotzen ditu, baita 2025. eta 2024. urteen arteko alderaketa ere.

2024 ETA 2025 URTEETAN LGTBIFOBIA GERTAKARIAK ZEIN KANALETATIK ERREGISTRATU DIREN



*(2) 2024an ez zen WhatsAppik erabiltzen gertakariak erregistratzeko.


Taula honetan, 2024an eta 2025ean LGTBifobia-**gertakari bat erregistratu dutenen adina** ageri da.

	0-17	18-29	30-49	50-69	70 edo gehiago	BESTE BAT	ED/EDE	GUZTIRA
2024	1	8	9	3	0	0	1	22
2025	0	12	28	4	0	0	0	44

Erregistratutako datuen igoerarik nabarmenena 30-49 urte bitarteko pertsonetan gertatu da, igoera % 211,11koa izan da. Haren atzetik datoz 18-29 urte bitarteko tartea (% 50eko igoera) eta 50-69 urte bitartekoa (% 33,33ko igoera) izan dutenak erregistratutako kasu-kopuruan.

Hurrengo grafikoak LGTBifobia-gertakari bat erregistratu duten pertsonen adin-tarteen ehunekoak jasotzen ditu, eta 2025. urtean erregistratutako kasuen kopurua, 2024koarekin alderatuta, igo ala jaitsi egin den erakusten du.

2024 ETA 2025 URTEETAN LGTBIFOBIA GERTAKARIEN BAT PAIRATU DUTENEN ADINA




Ondorengo taulan aurkezten da LGTBifobia-**gertakariaren bat erregistratu dutenen sexuaren** datuen bilakaera, aztertutako bi urteotan.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ BITARRAK	BESTE BAT	ED/EDE	GUZTIRA
2024	7	13	1	0	1	22
2025	23	14	6	1	0	44

Sexuari dagokionez, emakume kategoriak % 288,57 egin du gora, ehuneko osoaren % 52,27. Gizonezkoen kategorian igoera % 7,69koa izan da, eta pertsona ez-bitarretan, % 500ekoa. Hurrengo grafikoak LGTBifobia-gertakari bat erregistratu dutenen sexuari buruzko ehunekoak erakusten ditu, baita 2024. eta 2025. urteen arteko alderaketa ere.

2024 ETA 2025 URTEETAN LGTBIFOBIA GERTAKARIEN BAT ERREGISTRATU DUTENEN SEXUA




Hurrengo taulan ikusten da bi txostenetan aztertutako aldietan (2024–2025) LGTBifobiaren aurkako Behatokian erregistratutako indarkeria-moten bilakaera.

	2024	2025
HITZEZKOA	9	25
FISIKOA	6	8
SEXUALA	1	2
SINBOLIKOA	10	22
JAZARPENA	8	13
MEHATXUA	5	4
TOKI BATETIK KANPORATZEA	6	5
INSTITUZIONALA	1	1
ED/EDE	0	0
BESTE BATZUK	2	2
GUZTIRA	48	80

Nabarmenezkoa da hitzezko indarkeria gisa bildutako gertakariak % 177,78ko igoera izan dutela, indarkeria sinbolikoak % 120ko igoera, eta sexu indarkeriak % 100ekoa. Aldiz, % 20 jaitsi dira mehatxu gisa erregistratutako kasuak, eta % 16,67 espazio batetik kanporatutakoenak. Indarkeria instituzional gisa erregistraturiko gertakarien datuak bere horretan jarraitzen du.

Hurrengo grafikoak indarkeria moten ehunekoak aurkezten ditu, eta erakusten du kategoria bakoitzean erregistratutako gertakariak 2025. urtean igo edo gutxitu egin diren 2024. urtearekin alderatuta.

2024 ETA 2025 URTEETAN BEHATOKIAN ERREGISTRATU DIREN INDARKERIA MOTAK



Taula honetan, aztertutako bi aldietan LGTBifobiagatik erregistratutako gertakariak gertatu diren espazioei buruzko datuen bilakaera aurkezten da.


	2024	2025
EREMU PUBLIKOA	17	22
GARRAIO PUBLIKOA	0	1
KIROL-EREMUA	0	0
LAN-EREMUA	0	11
HEZKUNTZA-EREMUA	1	0
AISIALDI-EREMUA	1	4
ETXEA	0	2
ONLINE	0	1
CRUISING	0	3
ED/EDE	0	2
BESTE BAT	3	2
GUZTIRA	22	48

Hezkuntzaren esparruan erregistratutako gertakariak soilik egin dute behera; izan ere, 2025ean ez da kasu bakar bat ere erregistratu, hau da, % 100 gutxitu dira; beste bat kategorian, berriz, % 33,33 gutxitu dira kasuak.

Gainerako espazio guztietan, gehitu egin dira erregistratutako gertakariak, batez ere lan-eremuan, eta orotara 11 gertakari gehiago izan dira 2025ean.

Hurrengo grafikoan gertakariak egon diren espazioei buruzko ehunekoak aurkezten dira, eta 2024. urtearekin alderatuta, 2025ean kasuak gehitu ala gutxitu egin diren ikusten da.

2024 ETA 2025 URTEETAN ERREGISTRATU DIREN LGTBIFOBIA GERTAKARIAK NON GERTATU DIREN



Azkenik, 2024an eta 2025ean **auzoka erregistratutako kasuen** arteko aldea jaso da.

	2024	2025
AZPILAGAÑA	0	1
BUZTINTXURI	0	0
ALDE ZAHARRA	5	17
TXANTREA	1	1
ZABALGUNEAK	2	5
ERMITAGAÑA / MENDEBALDEA	1	0
ETXABAKOITZ	0	0
ITURRAMA	2	0
LEZKAIRU	0	1
MENDILLORRI	0	6
ARROSADIA	0	1
ARROTXAPEA	0	2
DONIBANE	3	2
SANDUZELAI	5	3
ED/EDE	1	5
GUZTIRA	22	44


Igoera nabarmenena Alde Zaharrean gertatu da, 5 kasutik 17ra, hau da, % 240ko igoera, hurrena Mendillorri, 6 kasuko igoerarekin (aurreko urtean ez zen kasu bakar bat ere izan). Zabalguneetan igoera %150ekoa izan da, erregistratutako kasuen kopurua 2tik 5era igo baita.

Aitzitik, Iturraman %100 jaitsi dira kasuak (ez da kasu bakar bat bera erregistratu, 2024ko bien aldean), eta Sanduzelai 5 kasutik 3ra pasatu da, %40ko jaitsierarekin.

Honako auzo hauek erregistratutako kasu-kopuru bera dute bi urteetan: Buztintxuri eta Etxabakoitz (ez dute kasu bakar bat ere erregistratu), eta Txantrea (urte bakoitzean kasu bana).

Hurrengo grafikoan auzoen arabeko ehunekoak aurkezten dira, baita 2025. eta 2024. urteen arteko alderaketa ere.

2024 ETA 2025 URTEETAN ERREGISTRATU DIREN LGTBIFOBIA GERTAKARIAK HIRIKO ZEIN AUZOTAN GERTATU DIREN



7. GOGOETA OROKORRAK

2025ean jasotako gertakarien azterketa kualitatiboak Iruñeko hirian LGTBifobia-eredu iraunkorrek identifikatzen ditu, baita indarkeria normalizatua zer modutan ematen den ere, batez ere espazio publikoan, ingurune digitaletan eta zerbitzu publikoetan (adib. osasun publikoa, hezkuntza-esparruak).

Gertakariak ez dira gertaera isolatu gisa interpretatu behar, baizik eta etsaitasunezko testuinguru sozial baten adierazpen gisa, non gorrotozko diskurtso jakin batzuek, bereziki trans pertsonen eta ez bitarren aurkakoak, legitimatu eta errepikatu egiten diren, bai maila indibidualean, bai kolektiboan.

7.1. ERASOAK NON GERTATZEN DIRENS

7.1.1. EREMU PUBLIKOA DA INDARKERIAREN AGERTOKI NAGUSI

Erregistratutako gertakari gehienak eremu publikoan gertatu dira: kaleetan, plazetan eta parkeetan. Eraso horietako gehienak Iruñeko Udalak LGTBI+ errealitate ezberdinetako banderekin margotutako eserlekuak txikitu edo hondatzearekin dute zerikusia, eta beraz, gertakari horiek “sinbolikoen” tipologian erregistratu dira. Erregistratutako gertaeren artean beste mota batzuetakoak ere badira: pertsonen zuzenean zuzendutakoak, irainen, mehatxuen eta abarren bidez.

Gertakari horiekin batera, bereizita erregistratu dira cruising-guneetan gertatu direnak. Gune horiek “eremu publikotzat” hartzen direlako jaso dira atal honetan, nahiz eta kategoria bereizi gisa aztertuko ditugun gune horietan gertatzen dena xehetasun handiagoz behatzeko.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatzen da espazio publikoa oraindik ez dagoela LGTBifobiatik libre eta, beraz, kaleak oraindik ez direla seguruak nortasun, sexu-orientazio edota -adierazpide ez-normatiboak dituzten pertsonendako, batez ere trans pertsonendako eta gizon gayendako.

Eremu publikoan honelako erasoak dira nabarmenenak:

- Ezezagunek eginiko hitzezko erasoak espazio publikoetan. Igoera % 177,78koa izan da, 2024an 9 gertakari erregistratu baitziren eta 2025ean 25.
- Behin eta berriz errepikatzen den indarkeria sinbolikoa: pintadak, eserlekuen aurkako erasoak, pegatinak, hiri-altzariak erretzea...

Hala, eremu publikoan LGTBI+ pertsonen segurtasun eza, hiperzaintza, beldurra eta autokontrola agerikoak dira berriro ere, elkarbizitzarako eta errespeturako gunea izan beharko lukeen arren.

7.1.2. LGTBI+ LANTOKIAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK+

Gertakarien kopuru esanguratsu bat LGTBI+ zerbitzu publikoetan eta horien kontra gertatzen da, zehazki Harrotun eta Kattalingunen: lantokiei lotuta erregistratu diren 11 kasuetatik 9 aipatutako bi gune horietan gertatu dira (Harrotu eta Kattalingune).

Gune horietako langileek kanpokoan irainak eta oihuak jasaten dituzte, baita etengabeko gorroto-diskurtso oso oldarkorrak ere.

Eraso horiek, langileengan duten eraginaz gain, LGTBI+ zerbitzu publikoen existentzia bera deslegitimatzea dute xede, eta haien funtzioa, zilegitasun instituzionala eta izateko eskubidea zalantzan jartzen dituzte.

7.1.3. INGURUNE DIGITALAK ETA SARE SOZIALAK

Behatoki honetan ez da ingurune digitaletako eta sare sozialetako erasoei buruzko daturik jasotzen eta haiei buruzko (WhatsApp, Instagram, Twitter...) erregistrorik ere ez dago, baina espazio horietan indarkeria kolektibo eta iraunkorra dagoela erakusten duten ebidentzien aurrean azterketa bat egin da. Izan ere, espazio horietan irain homofoboak eta misoginoak normalizat jotzen dira, talde-jazarpena egiten da eta erasotako pertsonak espaziotik kanporatzen dira, gainerako taldekideak isilik edo ezaxola gelditzen diren bitartean.

Behatokian ez direnez datu horiek erregistratzen, gune horietan gertatzen dena ere indarkeria dela ikusarazi eta ezagutarazteko premia ikusi da, eta garrantzitsua da indarkeria hori identifikatu eta sailkatzea. Antzematen den zigorgabetasunak eta inguruaren erantzunik ezak indarkeria beste modu batzuetan erreproduzitzea, eta kalte emozionala eta erasotako pertsonaren isolamendua indartzea dakartela uste da.

7.2. IDENTIFIKATU DIREN INDARKERIA MOTAK

7.2.1. HITZEZKO INDARKERIA ETA JAZARPEN JARRAITUAO

Hitzezko indarkeria da indarkeria motarik errepikatuena, eta puntualki nahiz modu jarraituan agertzen da. Ezaugarriak:

- Irain zuzenak (“marikoia”, “gaixoak”, “munstroak”).
- Diskurtso moralizatzaile eta patologizatzaileak.
- Mehatxu esplizituak edo estaliak.
- Gorrotoa legitimatzeko erreferentzia politiko edo erlijiosoak erabiltzea.

Kasu askotan, hitzezko indarkeria horri jazarpena, pertsekuzioa edo intimidazio jarraitua gehitzen zaizkio, eta horrek kalte psikologiko handia sortzen du.

7.2.2. INDARKERIA SINBOLIKO ERREPIKATUA ETA ANTOLATUA

Indarkeria sinbolikoa behin eta berriz agertzen da, modu iraunkor eta lokalizatuan, batez ere honako hauen inguruan::

- LGTBI+ eta trans kolorez margotutako eserlekuak.
- Aniztasuna babesteko gune instituzional agerikoetan

Honako hauek ikusi dira:

- Hiri-altzari jakin batzuei behin eta berriro eraso egitea (Askatasun plazan eta Mendillorri ortzadar-banderaz margotutako eserlekuak)
- Indarkeria areagotzea (pintadak → hondatzea → erretzea).
- Sinbologia faxista eta naziko gorroto-mezu esplizituak

Horrek gorrotoaren intentzionalitate politiko eta pedagogikoa jartzen du agerian, LGTBI+ ikusgarritasuna hiri-espaziotik ezabatzeko helburua duena.

7.2.3. PERTSONA TRANS ETA EZ-BITARREN AURKAKO INDARKERIA

Pertsona trans eta ez-bitarrak oso modu esanguratsuan agertzen dira erasoen helburu zuzen gisa, batez ere:

- Eremu publikoan dabilzan trans emakumeak.
- Trans pertsonak komunitateko sarbideetan.

Egiturazko transfobia antzematen da, eta adierazpide hauek ditu:n:

- Identitatea auzitan jartzea.
- Espazioen eta gorputzen kontrola.
- Diskurtso biologizistak.
- Indarkeria sexuala eta kasu batzuetan baita fisikoa ere.

Bereziki kezagarria da behin eta berriz gertatzea komunen erabilerari lotutako erasoak, jazarpena, kanporatzea, umiliazioa eta indarkeria fisikoarekin batera.

7.3. ERASOTZAILEEN PROFILA

Oro har, erasotzaileak honelakoak dira:

- Gehienetan gizonezkoak.
- Adin-tarte desberdinetakoak, eta batez ere:
 - Helduak (50–69 urtekoak), eraso ideologiko edo hitzezkoen kasuan.
 - Gazteak eta nerabeak, iseka, jazarpen eta talde-indarkeria kasuetan.
- Gehienetan ezezagunak dira erasoak pairatzen duenarendakoa.

Eraso kolektibo antolatutakoak ere detektatu dira, hala nola cruising-guneetan, manifestazioetan, bandalismo koordinatuan edo talde digitaletan.

7.4. INGURUKOEN ERANTZUNA ETA INDARKERIAREN NORMALIZAZIOA

Inguruaren axolagabekeria zeharkako elementu bat da. Jaso diren 44 intzidentzietatik 24tan soilik antzeman da ingurukoek nolabaiteko laguntza. Hala ere, kasu askotan ingurukoek erantzuna axolagabekeriazkoa da (erregistratu diren kasuetatik 7tan zehazki).

- Erasoak ikusi eta esku hartzen ez duten pertsonak.
- Erasoak jasan duen pertsonari laguntza espliziturik ez ematea.
- Indarkeria legitimatzen duen talde-isiltasuna.

Erantzunik ezak bakardade, zaurgarritasun eta zigorgabetasun sentzazioa indartzen ditu, eta mina areagotzen duen faktore gisa jotzen du.

7.5. SALAKETA ETA INSTITUZIOEKIKO MESFIDANTZA

Erregistratutako gertaeren %95 ez dira salaketa gisa formalizatzen: erregistratutako 44 gertakarietatik bitan bakarrik jarri da salaketa. Errealitate horretan faktore batek baino gehiagok izaten ahal dute zerikusia:

- Erasotzailea ez identifikatzea.
- Erasoak sinbolikoa edo hitzezkoa izatea.
- Erasoak jasan duen pertsona emozionalki akituta egotea.
- Prozesua alferrikakoa izanen dela uste izatea.

Datu horrek adierazten du gertaerak ez salatzea egiturazkoa dela, eta horrek ikusezin bihurtzen du LGTBIfobiak hirian duen benetako munta.

7.6. ERAGIN EMOZIONALA ETA ONDORIOAK

Kontakizunetan honako hauek islatzen dira:

- Beldurra
- Antsietatea
- Blokeoa
- Etengabeko segurtasun-ezaren sentrazioa
- Akidura eta higadura emozionala

Kasu batzuetan, erasoek ondorio zuzenak dituzte eguneroko bizitzan: errutinak aldatzea, espazioak ekiditea edo leku jakin batzuetara itzultzeko zailtasunak.

7.7. ONDORIO KUALITATIBOAK

2025ean erregistratutako gertakariak agerian uzten dute Iruñean LGTBIfobia :

- raunkorra dela, ez puntuala
- Modu anitzetan azaltzen da (hitzezkoan, sinbolikoan, fisikoan, instituzionalean).
- Osagai transfobiko nabarmena du.
- Zigorgabetasunak eta normalizazio sozialak indartu egiten dute.

Iruñeko LGTBIfobiaren aurkako Behatokia funtsezko tresna da indarkeria horiek ikusarazteko eta memoria kolektiboa sortzeko, batez ere, salatzen ez diren gertakarien eta ingurukoen erantzun ezaren aurrean.

8. ONDORIOAK

2025. urtean erregistratutako gertakarien azterketa egin ondoren, hauek dira ondorioak:

1. Behatokiaren zereginari dagokionez, gertakari horiek erregistratu egin behar direla berretsi da. Iaz baino gertakari LGTBIfobiko gehiago izan dira Iruñean.

Hori, neurri batean, Behatokia herritar gehiagok ezagutzen dutelako izan daiteke. Datuen arabera, beharrezkoa da baliabidea ezagutarazten jarraitzea, baita gertakariak erregistratzen eta aztertzen jarraitzea ere. Era berean, datuek Iruñeko LGTBIfobien aurrean prebentzioan eta esku-hartzean nola jokatu behar den hausnartzen laguntzen digute.

2. 2024an gertatu zen bezala, 2025. urtean ere ikusi da, denbora joaten dela erasoa gertatzen denetik erregistratzen den arte.

Pertsona horiek erasoan aurrean garatzen dituzten mekanismoak aztertu eta kontuan hartu behar dira, besteak beste, beldurra, shock egoera edo errua, erasoa gertatu bezain laster erregistratzea eragotz baitezakete. Horrek agerian jartzen du LGTBIfobia egoerei aurre egiteko larrialdietako espazioak behar direla.

3. Gertakariak erregistratzeko erabilitako bideari dagokionez, aldaketa bat izan da 2024tik hona. Urte horretan, gertakarien % 50 on-line inprimakiaren bidez erregistratu ziren; 2025ean, aldiz, % 38,6k egin du modu horretan, eta ehuneko berak erregistratu ditu aurrez aurre. Aurrez aurreko aukera hori espazio seguru batean entzuna eta lagundua izateko premia gisa uler daiteke, eta zuzeneko arreta profesionalek ematearen garrantzia nabarmendu behar da, haiek baliabideak egoera zailetan bertara joateko eta harrera konfiantzaz egiteko leku batetik eskaintzeko aukera baitute. Beraz, datu horrek agerian uzten du, berriro ere, herritarrek sarbidea izateko eta lagunduak sentitzeko espazioak behar dituztela, eta espazio horietan sexu- eta genero-aniztasuna errespetatu behar direla.

4. 30 eta 49 urte bitarteko pertsonen dira oraindik ere gertakarien berri gehien ematen dutenak, guztizkoaren % 63,6. Sexuari dagokionez, emakumeak dira gertakarien berri gehien ematen dutenak, guztizkoaren % 52,3. Lehenengo datuaren arrazoi bat izan liteke, bai pertsona gazteenek, bai zaharrenek, zailtasun gehiago izatea gertakari baten berri emateko, edo zailtasun gehiago izatea egoera LGTBIfobikoak antzemateko. Bigarren datua baliteke diskriminazioarekiko sentsibilizazio handiagoaren ondorio izatea, emakumeek aurretiaz pairatutako desparekotasun- eta matxismo-esperientzien ondorioz..

5. Erasoa jasan duten pertsonen adinari eta sexuari dagokienez, gertaerarik gehienetan ez da jakiten edo ezezaguna da. Hori, alde batetik, bildu diren gertakari asko “sinbolikoak” direlako izaten ahal da, eta ondorioz, ez dagoelako pertsona zehatz bati zuzendua, baizik eta herritarrei oro har. Beste arrazoietako bat izaten ahal da erregistratutako gertakari askotan erasotuak pertsona bat baino gehiago izatea baina inprimakiak atal horretan datu bat baino gehiago sartzeko aukerarik ez ematea. Horrek erakusten ez dela erraza erasoa jasan duten pertsonen buruzko zenbait datu erregistratzea.

Hala ere, erasotutako pertsonen adinari eta sexuari buruzko datuak ezagunak direnean, nabarmentzekoa da emakumeen kategoriako ehunekoa % 29,5ekoa dela, gizonezkoenaren aldean (%20,5). Adinari dagokionez, ezagutzen ditugun ehunekoak antzekoak dira 18–29 urteko adin-tartean eta 30–49 urtekoan (% 22,7).

Erasotuen identifikazioari dagokionez, informazio hori dagoen kasuetan, erasoen %38,5 trans pertsonen aurka bideratzen dira, batez ere eremu publikoan dabiltzan trans emakumeengana. Errealitate horrek identitatea auzitan jartzean oinarritzen den egiturazko transfobia azaleratzen du, eta erakusten du indarkeria horiek isolatuak izatetik harago, gizartean trans pertsonen existentzia deslegitimatzea bilatzen duen arkitektura diskriminatzaile baten barnean kokatzen direla.

6. Erasotzaileei dagokienez, erasoen erdiak gizonek egiten dituzte. Datu horren atzean, faktore bat baino gehiago egon litezke, besteak beste, gizarteak onesten dituen genero-ereduak auzitan jartzen direnean horiek berresteko premia. .

7. 2025eko erregistroetan, hitzezko indarkeriak gora egin du (% 30,5eraino), eta orpoz-orpo baita indarkeria sinbolikoak ere (% 26,8raino). Horrek azterketa hau egitera garamatza::

- a. 2025ean gertatu diren hitzezko indarkerien artean, kolektiboko pertsonenganako irainak, mespretxuak eta mehatxuak dira nagusi. Aurten ere, batez ere gizonek bizi dituzte mota horretako indarkeriak. Beraz, espero diren aginduetatik kanpoko genero-adierazpenak izatea, horrelako erasoak jasateko arrisku faktore bilakatzen ahal da. .
- b. Eraso sinbolikoak, berriz, LGBTBI+ kolektiboaren ortzadar-banderaren koloreekin margotutako eserlekuen eta LGBTBI+ akronimoaren letrak dituzten banderen aurkakoak izan dira. Beste mota bateko indarkeria sinbolikoak ere erregistratu dira, hala nola, sexu aniztasunaren errealitatea auzitan jartzen duten kartelak edo kanpainak eta errealitate horien kartelen aurkako isekak, barreak edo iruzkinak. Gainera, 2025ean, homosexualitatearen aurkako diskurtso erlijiosoen hedapena erregistratu da berriro ere. Gorroto-diskurtso eta eraso horiek arau sozialak mantentzea dute xede, gizartearen arbuioa indartzea, eta beldur-giroa sortzea.

Indarkeria mota horiek, beraz, prebentzioaren, sentsibilizazioaren eta herritarrekiko esku-hartzearen premia azaleratzen dute, indarkeria ikusaraztearen (Behatokiaren garrantzia nabarmenduta) eta jarduera-protokoloen bidez.

8. Aurreko urteetan ikusi ahal izan den moduan, erregistratutako gertakariak **espazio publikoetan** gertatzen dira nagusiki. 2025ean erregistratutako kasuen % 22,9 gertatu dira espazio publikoetan. Datuek erakusten digutenez, espazio horietan gehien errepikatu diren gertakariak pintadak, irainak edo eserlekuak apurtzea izan dira. Horrek erakusten du oraindik ere badela LGTBI+ pertsonen eskubideen aurkako indarkeria, eta anonimotasunetik gauzatzen dela batez ere.

9. 2025ean gertakari gehien izan duen auzoa Alde Zaharra izan da, 2024an ez bezala, urte horretan Donibane nabarmendu baitzen, inguru horretan izandako cruising kasuengatik. Cruising-guneetako gertakarien erregistro-kopurua txikiagoa izatea datu positibotzat hartu badaiteke ere, garrantzitsua da aipatzea gune horietan erregistrorik ez egoteak ez duela esan nahi kasu horiek gutxitu egin direnik, baizik eta litekeena dela ez erregistratu izatea.

Bestalde, Alde Zaharreko gertakariak gora egin dute. Arrazoiak bat baino gehiago izaten ahal dira, esaterako, Harrotu auzoan bertan egotea; horren ondorioz litekeena da auzoan bizi direnek edo bertan denbora gehien pasatzen dutenek zerbitzua hobeki ezagutzea eta gertaeren berri emateko tresna hau erabiltzeko erraztasun handiagoa izatea. Bestalde, Alde Zaharra sozializazio-gune bat da Iruñeko eta inguruetako pertsona askorentzat; ondorioz, litekeena da bertan kontsumoekin kontaktu handiagoa izatea, eta horrek eraso gehiago izatearekin zerikusia izatea. Horrela bada, ondoriozta daiteke, batetik, Harrotuk, eta ondorioz LGTBIfobia-erasoen aurkako Behatokiak, zailtasun handiagoa dutela beste auzo batzuetan gertatzen dena behatzeko eta aztertzeko, eta, bestetik, kontsumoak onartuago dauden eta behin eta berriz errepikatzen diren espazioetan gutxiago zigortzen direla eraso horiek.

10. Erregistratutako kasuen erdietan baino gehiagotan (% 54,5), erasotzaileak ez du erasotzailea ezagutzen. Txostenean aipatu den moduan, erasoak “sinbolikoak” izateak eta eremu publikoan gertatzea izan daitezke horren arrazoia. Horrek esan nahi du Behatokia ez dela modu berean iristen ari eremu pribatuan gertatzen diren indarkerietara, eta ez dituela jasotzen eremu intimoenetan gertatzen diren indarkeriak, hala nola familia barrukoak edo genero barruko indarkeriak.

11. Hirugarrenek LGTBifobien aurrean duten jokabideari dagokionez, nabarmentzekoa da erregistratutako gertakarien % 27an jendea zegoela inguruan. Ehuneko horren barruan, % 4,7k baizik ez zuen esku hartu. Datu horrek agerian uzten du gizarte-ekimen gutxi dagoela, eta, beraz, bazterketa-egitura horiek mantendu eta normalizatzen ari direla. Datu horrek agerian uzten du, beste behin ere, beharrezkoa dela erasoak ikusaraztea eta indarkeria-egoerak daudenean baliabideak eskaintzea haietara jo ahal izateko.

Laburbilduz, datu horiek guztiek LGTBifobia-erasoetako aldagaiak jasotzen dituzte, eta, hain zuzen ere, horregatik berresten da jokabide horien aurkako prebentzioan, ikusgarritasunean eta esku-hartzean lan egiten jarraitzeko beharra. Diskriminazioaren aurrean ezinbestekoa da zerbait egitea.

9. AHOLKUAK

LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeriak gure kulturek historian zehar eraiki duten aurreiritzi sozialaren adierazpena dira, eta egungo hezkuntzak eta sozializazioak horiek indartzen jarraitzen dute. Pertsona horien eta, beraz, gizarte osoaren askatasunen eta eskubideen aurkako eraso zuzena dira.

Pertsona horiei eragiten dieten indarkerietako zeinahik oinarri bera du: sexu-orientazioaren, genero-adierazpenaren eta sexu- edo genero-identitatearen aniztasunaren arbuioa, sexu/ genero sistemaren arauak gainditzen dituztenen edo gainditzen dituztela diruditenen aurka, bai eta haien ingurunearen aurka ere. Arbuio hori aniztasunari erantzuteko eta zisheteronormatibitatea indartzeko tresna gisa artikulatzen da, horiek ezartzen baitituzte arauak eta bizi-estiloa, sexuen araberako banaketaren arabera.

Oinarrizko eskubideen urraketa horiek ez dira gertaera isolatu gisa jorratu behar, LGBTIfobia deritzon egiturazko arbuio baten adierazpen gisa baizik.

LGTBI+ identitatea ez da bakarra, oso bestela, identitate ez-normatiboen aniztasuna izugarria da. Pertsona horiek guztiek partekatzen duten ezaugarri komuna diskriminazioa da: guztiek antzeko urraketak pairatzen dituzte giza-eskubideei eta herritar gisa dituzten eskubideei dagokienez, beren identitatea, orientazioa edo adierazpen ez-normatiboa dela eta. Indarkeria horiek guztiak pluralean aipatzen dira, aurreiritzi sozial hori era jarraituan agertzen baita, gutxi-asko esplizitua den arbuio batetik indarkeria fisikora doan continuumean.

Ikusgarritasuna mota askotako jazarpen edo erasoen abiarazletzat hartzen da: LGTBI+ pertsona gisa ikusgarri bihurtzeak agerian geratzea dakar edo areagotu egiten du indarkeria jasateko arriskua. Beraz, txosten hau eta txostenetik eratorritako ekintza guztiak honako erreferentzia hauetan oinarritzen dira:

1. LGTBIfobia eraikuntza sozial eta kultural bat da, hezkuntzak eta sozializazioak indartzen dutena.

2. Continuum gisa adierazten da: gutxi-asko sotala den gaitzespenetik indarkeriaraino. Adierazpen guztiek ez dute izaera eta ondorio bera, baina guztiak eraikuntza beraren parte dira.

3. Sexu-orientazioaren, genero-adierazpenaren eta sexu- edo genero-identitatearen aniztasunaren arbuio moduan agertzen da, heteronormatibitatea indartzeko estrategia gisa.

4. Askotariko kolektiboa da, eta, beraz, elkarren antz gutxi duten esperientziak izaten dituzte batzuek eta besteek. Haien elementu komunari jarri nahi zaio arreta, LGTBI+ pertsona guztiek aurrez aurre duten aurreiritzi sozialetik eratorritako indarkeriari, hain zuzen.

5. LGTBIfobia, lehenik eta behin, sexu-/genero-sistematik, familia-sistematik eta lagunarteko-sistematik kanpo dauden aurka egiten da, baina sorkuntza kultural eta soziala den heinean, aniztasuna aitortzearen aurkako erasotzat eta giza askatasun eta balio zibilen arbuio estrukturaltzat hartu behar da..

Azaldu dugun moduan, LGTBIfobiaren aurkako borroka kausa anitzekoa da, eta hainbat esparru inplikatu behar ditu eta hainbat esparrutatik heldu behar zaio. Alde batetik, beharrezkoa da herritarrak inplikatzeko hura salatu eta desagerrarazteko; gizarte-mugimenduak ere, oro har, beharrezkoak diren aldaketa-eragile diren aldetik, parte aktiboa dira; baita LGTBI+ kolektiboak ere, indarkeria LGTBIfobikoak testuinguruan jartzeko ezinbesteko elementuak baitira. Azkenik, politika publikoak diseinatzeko ardura duten heinean, erakundeek dute indarkeria horiek desagerrarazteko eta horiei erantzun egokiak emateko ardura.

Iruñeko Udalaren LGTBifobiaren aurkako Behatokiak gomendio batzuk biltzen ditu, sexu- eta genero-aniztasuna askatasunean bizi ahal izateko hiri bat eraikitzen jarraitzeko gida modura balio dezaten.

1. Iruña sozializazio- eta bizikidetza-espazio batizandadinsustatzea, non, ikuspegi interseksional batetik, politika publikoak garatuko baitira giza eskubideen esparruan baliabideak eta tresnak eskaintzeko, pertsona guztiendako espazio inklusiboak bermatu ahal izateko eta sexu- eta genero-aniztasuna errespetatzeko.

2. LGTBifobiaren prebentzioan aurrera egitea, LGTB+ pertsonen pairatzen duten diskriminazioaren eta indarkeriaren aurkako informazioa eta sentsibilizazioa baliatuz.

3. LGTB+ pertsonen bizi dituzten errealitateei buruzko datu eta azterlan egiaztatuen bidez informazioa ematea, kolektiboa estigmatizatzea eta informazio manipulatu edo demagogikoa eskaintzea helburu duten gorroto-diskurtsoei aurre egiteko.

4. LGTBifobia kasuetan salaketa- eta laguntza-mekanismoak indartzea.

5. LGTB+ pertsonen erabakiak hartzeko gune instituzionaletan eta haiengan eragina duten politiken diseinuan parte har dezaten ahalbidetzea.

6. Herritarrei aurrez aurreko arreta ematen dieten langileak trebatzea, LGBTI+ errealitatearen eta sexu- eta genero-aniztasunaren arloan.

7. Zaintzea Udal-espazioak erabiltzen dituzten entitateek edo taldeek ez dutela gorroto-diskurtzorik, mintzaldi LGTBfobikorik edo transfoborik sustatzen.

8. Komunikabideei bideratutako prestakuntza espezifiko bat programatzea sexu- eta genero-aniztasunari buruz, hirian gertatzen ahal diren eraso edo gertakari LGTBifobikoen tratamendua ikuskizun bihur ez dezaten, eta arreta zabaldu eta LGTBifobia egiturazko arazo bat dela ohar daitezen.

9. LGTBifobiaren aurkako kanpainak egiten jarraitzea.

10. Bermatzea emakume sexu-identitatea duen eta indarkeriaren, sexu-erasoaren edo salerosketaren biktima den pertsona orok eskura dituela, berdintasun-baldintzetan, horretarako dauden laguntza-baliabideak, legezko dokumentazioak islatzen duena gorabehera

11. LGTBifobiak adin-tarte guztietan duen eragina ezagutzea, haur eta nerabe transen ikuspegia esplizituki kontuan hartuta

10. PROPOSAMENAK

Jarraian, Txostenaren ondorio eta gomendioetatik ateratako zenbait proposamen zehazten dira, zehazki, LGTBI erasoan aurrean koordinatzeko eta erantzuteko protokoloaren barruan Batzorde Iraunkorrean landutako ondorioetatik eta Harrotu LGTBI zerbitzuko langileen behar eta oharretatik hartu direnak.

1. Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko prestakuntza ematea udal-eragileei, bai barnekoei, bai kanpokoei.

2. Udaltzaingoko kargudunei sexu eta genero aniztasunari buruzko prestakuntza ematea, polizia talde horretako gradu guztiendako.

3. Sexu- eta genero-aniztasunaren arloko jardunbide egokiei buruzko prestakuntza, komunikabideei zuzendua.

4. Prebentzio neurri gisa, LGBTBI Kontseiluarekin eta, oro har, Iruñeko LGBTBI elkarte-sarearekin koordinatuta lan egitea proposatzen da, LGBTIfobia-indarkerien ezaugarri espezifikoak aztertzeko asmoa.

5. Hezkuntza- eta osasun-arloan, sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez dauden beharrak eta eskaerak erregistratzea.

6. Iruñeko talde feministekin koordinatuta lan egitea, jai-eremuetan LGBTIfobiak eragindako erasoak prebenitzeko, eta sentsibilizazio-kanpainak antolatzea horrelako guneei begira.

7. Sare-lanean jardutea larrialdietako baliabideekin, arreta hobea emateko LGBTIfobiaren eta genero barruko indarkeriaren biktimei.

8. Plan bat sortzea Iruñeko auzoetan Behatokia ezagutarazteko, auzo horietako balizko indarkeria LGBTIfobikoa behatu, aztertu eta jasotzeko.

Proposamen horiek orientagarriak izan daitezke Iruñeko LGBTIfobiaren aurkako Behatokiak eta, oro har, Iruñeko Udalak egin beharreko ekintzak definitzeko.

2025
eko



URTEKO TXOSTENA LGTBIFOBIAREN AURKAKO BEHATOKIA



Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udala



Harrotu
CENTRO LGTBI GUNEA